

Nemesio Etxaniz

**GABAK ZEKARREN
EGUNA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*, Etxaniz'tar
Nemesi. Kuliska Sorta, 1958.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=34>

GABAK ZEKARREN EGUNA

Iru egintzadun antzerkia,

Arantzazuko Amaren Urte Santuaren omenez.

*1956'garren urteko antzerki-leiaketan
lenengo saria jaso.*

ANTZEZLARIAK:

GEBARA'TAR ENEKO, Oñatiko kondea, bere etxe-ko batzuekin.

ARTAZUBIAGA'TAR MARTIN, Arrasateko Bañezta-
rretakoa.

OZAETAKO OTXOA'TAR SANTXA, Martiñen andrea.

BARRUTI'TAR JUAN, Ibarretako ola zarreko maizte-
rra.

MILIA, Barruti'tar Juanen alaba.

ANA, Ibarretako mirabe zarra, 60 bat urtekoa.

FORTUN, Butron Gonzalez'en sasikumea, Burde
gaitzizenez ezagutua.

**ISASIGAÑA, URREXOLA'TAR OTXOA, URREXOLA'-
TAR ORTIZ JUAN, UMAREN, AMESKARAI**, Fortun'en
eskutari oñaztarrak.

MILIA EZ BESTE GUZIAK, 40'tik 50 urtera bitarteko-
ak.

ERRODRIGO, Baltzategiko semea.

LOPE, Errodrigoren aita, 45 urtekoa.

JUANA, Errodrigoren arreba, 20 urtekoa.

URREXOLAKO PEDRO, 48 urtekoa.

MARTIÑA, Pedroren alaba, 23 urteduna.

JOANES ARAOZKOA, 46 urteduna.

ANDRESA, Joanes'en alba, 19 urteduna.

JOXEPE, IBAN, PERU ta **MATXIN**, ola zarreko langi-
lleak.

Arrasate ta Oñatiko erromes, koplari, gazte-talde
ta abar.

LENBIZIKO EGINTZA

GAIZTO-ZULO

*Antzez-oiala jasotzerako itzali bitez argi guziak.
Ikusleei begira bi argi gorri piztu, ta antzez-tokia illun
dala, abots baten deia entzun bedi:*

ANTZIÑAREN DEIA: *(Esanaz edo abestuz:)*

Ni naiz Antziña zarra
Euskalerrikoa!
Nere gain daukat Mari
Gaiztoren besoa;
errien ondarena,
giza-gorrotoa,
eta aztikerien
illunpe-lañoa.

*Itz auek buka-bezin laster, piztu bedi antzez-tokia.
Aurrean degu Ibarretako ola zarra, Garagartzatik Arra-
satera bidean. Ana, etxeko mirabe zarra, ta Milia,
amairu urteko neskatilla, atari-aurrean izketan ari*

dira. Ana, arabaki batzuek konpontzen; Milia, aurgisan, oraintxe jaiki, oraintxe Anaren esanetara adi.

Lenengo Agertaldia

ANA TA MILIA

ANA: *(Jolasean dabilen Miliari:)* Naikoa da jolasetik, Milia.

MILIA: Oraintxe ari naiz amaitzen.

ANA: Ai, gaiztoko! Beti jolasa luzatzen. Ta noiz ikasi bear dezu lanean? Amairu urteak beteak dituzu.

MILIA: Oraindik eguna luzea degu. Maiatzean ordu asko ditu argiak lan egiteko.

ANA: Zer esango du gero zure aitak? Ez dezula ezer ikasten. Emakumetxo-lanak ikasten asteko, badezu ordua... Eztago zure ama begira!... Ura bizi izan balitz, alperrean egoten etzizun utziko.

MILIA: Nere ama!... Beti nere ama... Nolakoa zan nere ama, Ana?

ANA: Ura, bere beteko andrea, Milia. Langillea, txukuna, etxeko arreta artzen zekiana, ta zu asko maite zinduzena.

MILIA: Polita al zan? (*Anarengana urbilduaz.*)

ANA: Begi-beltx ederrekoa. Bekoki argi; illea egoki batua; buru-zapia ematen zekiana. Ots gutxi ta lan asko egiteko emakumea; ez gaurko zenbait gazte arin bezelakoa.

MILIA: Ai, baña! Neretzat dena alperrik; amarik gabe asi naiz-ta.

ANA: Bai, Milia. Etzan egun ederra izan zure aitarentzat. Zu jaio ziñaneko pozak, bereala negarretan galdu ziran.

MILIA: Txikia al nintzan orduan?

ANA: Esku beteko aurtxoa artean. Gogoan det oraindik amak oean nola artzen zinduzen bere bularretan.

MILIA: Zeñen azkar galdu nuan!... Nola il zan, Ana?

ANA: Zuri bizia ematearren, kandela bat bezelaxe urtuta. Gogoan ditud azkenengo zure amaren itzak: «Juan, deitu zion oe-ondoan negarrez zeukan zure aitari, il baño len gauza bat agindu bear didazu: aur oni bizia ematearren, nere bizia galtzera noa. Bion arnasa emanaz sortu degun bizi berri au, ondo gorde ezazu.»

MILIA: (*Biotz-bera:*) Amatxo errukarria.

ANA: Zori obea merezi zuan emakumea ura. «Ana, esan zidan orduan, nere aur onentzat zuk egin bearko dituzu ama-ordeak.» Txuri-txuri zegoen; odol asko galdu baitzan. Azkenik, zituan indar guztiak batuaz, laztan estu eman zizun. Laztan aretan joan zitzaion bere azken-arnasa.

(Aizea nasten dator.

*Emakume biak azken-itzen
oroipenetan ixileta geldirik lotzen dira.
Aize-bolara bat arrotzen da.)*

ANA: Ene!... Aize au... Ederki gogoratzen naiz... Orre-lakoxe egualdia zan zure ama il-aurrez. Ta gaur amasei urte ere, Arrasate su ta gar erre zanean, aurrez orrelakotxe aizea jaiki zan... Mari Gaizto!... Garagartzako kanpaiak geldituko al du.

MILIA: Zer ari zera, Ana?

ANA: Ikusten al dituzu laño aiek? Maiatzeko Gurutze-eguna igaroa degu. Agorreko Gurutze-egunearte Mari Gaizto laño oien zai egoten da bereak egiteko. Goiko ta beko aizea burrukan asten diranean, an da bere aitz-zulotik atera nairik.

MILIA: Nor da Mari Gaizto?

ANA: Andrazko sorgin gaizkille bat. Anboton du bere gordeleku nagusia. Aitzulo aundib atean gordeta, an asmatzen ditu giza-emakumeok galtzeko biurrikeri guziak. Ez al dituzu uda-aldean Garagartzako kanpaiak sarri entzuten? Mari Gaizto bere zuloan lotzeko jotzen dituzte; baña apaiza errian eztalako-edo, kanpai-jotzea luzatzen badute, Mari Gaizto bere aitzulotik irtetzen da igesi, ta egundoko zorigaitzak bialtzen ditu lur ontara. Euskalerra gaxoa, aren asmaketa txarren mende gorrian bizi da.

MILIA: Ta irtetzen danean, nora joaten da?

ANA: Aloñaren malda du beste ezkuta-lekua. Gaiztozuloko aitz-aoan barrena galtzen da orrelakoe-tan. Erruki arek orduan ikusten duana! Laster izango du etxean edo auzoan il-berriren bat.

MILIA: Ta iñork ikusi al du Mari Gaizto?

ANA: Askok eta askok, Milia. Neuk ere, zure amaren eriotz-aurrez ikusi nuan; baita Arrasate kixkali zuten aste-barruan ere. Suzko bola bat dirudi aidean dijoanean; gar-isatsa dariola dijoa, eta aize-burrunda barruan zaldi-talde izuen azkazkal-ots aundia nabaitu oi-da. Aren zalaparta orduan.

MILIA: Bai beltz jarri zaigula Udala-aldea!

ANA: (*Ontan, aizeak txistu bizia jotzen du. Tximistak asten dira. Urrutira, kanpai-ots aundia entzungo da Garagartza-aldeetik.*) Berandu!... Berandu dator kanpaia! Mari Gaiztok zulotik iges-egin du, ta galduak gera. Sartu gaitezen etxera lenbailen, sorgiñak ikus ez gaitzan. Jainkoak erioztatik gorde gaitzan, kandela bedeinkatua piztuko degu.

Bigarren Agertaldia

LENGOAK ETA JUAN. GERO, MARTIN

JUAN: (*Etxetik irtenaz:*) Baña, zer istillu ta garraxi dituzu, Ana?

ANA: Mari Gaizto! Mari Gaizto!... Goazen barrura, Juan.

JUAN: Emakumeen kontuak!... Tximista batzuek gorabera, gizonak ez du ezkuta-bearrik... Gañera, or bidean ikusten det ola onetako nagusia. Emen itxoingo diot sorgiñen ibillien kezkarik gabe.

MARTIN: Arratsalde on, guztioi, naiz ta egualdiak lagundu ez digun. (*Sartzen da.*)

JUAN: Bai, Martin. Goi ortan asarre dira, nunbait.

MARTIN: Nolatan da lana, Juan?

JUAN: Mendera-samartu degu gaurkoa. Burni berria egiteko salda laster aterako degula, uste det. Mutillak ederki saiatu zaizkigu beren lanean. (*Ontan, trumoi aundi bat entzuten da. Geitzen dijoa otsa. Albo batetik argi bizi bat sortzen da. Zaldi-talde-orpoen zalaparta dirudi.*)

ANA: Ene! Mari Gaiztoren zarata da ori... Sar zaitetze barrura sorgiñak ikus gaitzan baño len; bestela galduak gera. Atoz, Milia, lenbailen. Dorletako Ama on orrek, salba gaitzazu! (*Barrura bijoa Milia eskutik duala. Gizon biak bertan gelditzen dira. Alde batetik bestera, al-izan ezkerro, ikusleen agiri, suzko bola ta gar-isats bat igaroko dira une ontan.*)

Irugarren Agertaldia

MARTIN ETA JUAN

MARTIN: Ikusi al dezu Juan?

JUAN: Zer?... Tximista ori? Ez da lenbizikoa izan.

MARTIN: Baña bai gogorragoa. Entzun al diozu Anari?

JUAN: Ba! Sorgiñak eta aztiak, bebiltz beren bidetan. Nik naikoa det gure ola zarraren kezka. Emakumeak uxa ditzatela aide txarrak.

MARTIN: Nik eztiel, ba, emakumeei parre geiegi egingo. Gogoan al dezu gaur amasei urteko ura?

JUAN: Arrasate osoa sutan galdu genduaneko ura?

MARTIN: Urte artan ere, onelakoxe egualdiak jo ginduzen aurrez.

JUAN: Oso siñisbera ikusten zaitut, Martin. Artazubia-ga bati onelako kezkak ez diote lorik kendu bear.

MARTIN: Ba al dakigu, gero, ezer ontan? Jaungoikoak ere, bere abisuak bialtzeko ar ditzake onelako agiriak.

JUAN: Ez dezagun Jaungoikoa sartu gurte ustekerietan.

MARTIN: Ustekeriak!... Besterik ikusi ezpagendu... Ondo gogoan det oraindik. Udalatik begira nengoela, egundoko aize-burrunda sortu zan batbatean... Inpernu guzia dantzan asi balitz bezela, trumoi ikaragarri bat jo zuan Anboto-alde-

tik... Nerekin zijoazenak, batzuek, zure antzera, ekaitzari parrez gelditu ziran... Besteok an urbil agiri zan txabola batean gorde giñan. Gorde etziran guziak, oñaztarren eskuetan il ziran urte artako sarraskil aretan.

JUAN: Oñaztarrak pixka baterako elbarrituta gelditu ziran Arrasateko gudaketan. Butrongo sugeak emen utzi bear izan zituan bere pozoi ta mizto-rra.

MARTIN: Ez da galdu arraza. Aren kimua Aramaioz jabetu da berriro. Juan Alonso, Muxikako Jauna ta Butronen sasikumeak, aren odola du zañetan. Atzaparrak gordeta dauzka, baña katamotza beti katamotz da.

JUAN: Ez ditzagun aurreratu zoritxarrak. Gaurkoz mutillak zertan diran ikustera sartzea obe izango degu.

MARTIN: Bai, Juan. Sartu bat egiteko ordua degu. Goazen.

Laugarren Agertaldia

FORTUN BUTRONGOA TA ISASIGAÑA

FORTUN: Entzun al diek, Isasigaña?

ISASIGAÑA: Bai, Fortun jauna. Oiei etzaie aldatu leporik.

FORTUN: Ederki ekarri gaituk, Isasi. Butronen sasikumea naizen bezin garbi zegok, Artazubiaga Martin gure eskuetan dagoela.

ISASIGAÑA: Nik ez ditut erdizka egiten gauzak.

FORTUN: Muxikako jaunak ondo ordainduko dizkik lan auek. Aramaio urrean zegok emendik, eta geurea egin ondoren, arrapa gaitzatela.

ISASIGAÑA: Butronen odola deadarka zegoen aspaldi ontan.

FORTUN: Amasei urte luze Arrasaten ainbeste oñaztar jator galdu zirala.

ISASIGAÑA: Gogoan ditut amaika. Gastintzako Lope, Kapikario Gaixtoa ta Eginotar Pedro, burrukan ain ausartak; Ariztizabal'dar Juan, il arte ain bikain jokatua; Elorriaga'tar Lope, egun artako zaurietatik il zana...

FORTUN: Ta denen buru zan gure aita; Juanikote, nere anaia, ta Presebal, nere lengusua; alkarren albo erori ziranak.

ISASIGAÑA: Ganboar ustel oiek, etzuten erria artzeko kemenik, eta billau-odola dutenez, erria erre-
tzea asmatu zuten, diabruak aizatuta.

FORTUN: Eztituk gozoak izan urte auek! Luze joan zai-
guk ixillik egotea. Baña gaur emango diagu
erantzuna. Neurriak ondo artuak al dituk?

ISASIGAÑA: Bai, Fortun jauna. Urrejola biak, Juan eta
Otxoa, emen gertu zai daude. Umaran'dar Otxo-
te, lagun dute. Ameskarai'tar Diego, berriz,
bidean dan.

FORTUN: Ederki zegok. Artazubiaga'tar Martiñek bere
erriari egin zion billaukeria, gaur ordainduko
dik.

ISASIGAÑA: Orrelako sugeak, oinpean zapaldu bear
dira. Ala ez dute geiago bururik jasoko.

FORTUN: Baña goazen lagunengana. Ola-mutillak
bere lana bukatzen duten bitartean, gure egite-
koa ondo gertu bear diagu. Lenbizi, mutillak
aldegin arte, ezkutu egongo gaituk. Arrazkero,
bosten artean gizon bakarra errez menderatuko
diagu. Barruti'tar Juan Martiñ'en alde ateratzen
bada, garbi ura ere.

ISASIGAÑA: Ederki, jauna. Orrela jokatzea, jolas bat
izango da.

FORTUN: Bada-ezpada ere, inguruak miatu itzak, iñor azalduko balitz ere, geron burua gordetzeko. Ni banijoak besteengana.

ISASIGAÑA: Egon lasai. Nik zaituko ditut bideak. (*Badijoaz biak.*)

Boskarren Agertaldia

JOXEPE, IBAN, PERU TA MATXIN

JOXEPE: Au dek astelena, mutillak.

IBAN: Besteak bezelakoa, Joxepe.

JOXEPE: Ez nerea. Atzoko ondo ederra zeukeat, Iban.

PERU: Zenbat pitxar uztu ituan, Joxepe?

JOXEPE: Ago ixillik, Peru. I beti legortearen alde aiz.

MATXIN: Goizo etxeratuko intzan, gañera.

JOXEPE: Ezon goizago. Goizeko ordubatak dan-danean ituan.

MATXIN: Nik esaten nuana. I beti oso goiztar izan aiz.

JOXEPE: Ona emen beste praillea! I beintzat, ez au gibelak galduko. Berriz ere, i lanera baño len, joko dik ordua. Jaio ere, ordu erdi bat geroago egingo intzan i.

MATXIN: Ez, ba. Ni jaio-zai zeudenak etortzerako, oiñez ikasia niñukan.

IBAN: Asko aldatu aiz arrazkero, Matxin.

MATXIN: Aurretan aur bezela, Iban; eta gizon egidakoan, gizonki.

JOXEPE: Gaurkoa bukatu diago zorionean, eta nasaitu gaitezen kopla zarretan.

PERU: Ez uke gaizki esana, balego nun edana.

JOXEPE: Ortik bear bada, emen diagu zatoa. (*Erakutsiaz.*)

PERU: Orduan, aurretik dala tragua, egiña zegok tragua.

JOXEPE: Orra nerea. (*Edanaz.*) Tori bakoitzak berea. Besteei emanaz.

IBAN: (*Edanaz.*) Ardo gorri naparra.

PERU: (*Edanaz.*) Eztarriko lakarra.

MATXIN: (*Edanaz.*) Kentzen au dek azkarra.

JOXEPE: Ni naiz ola zarrean - deitua igela;
nik meetzen dat burnia - nai dedan bezela.

IBAN: Ni naiz urtzalleetan - aurrena kantatzen;
izerdia dariot - burni-salda urtzen.

PERU: Ni ere, urtzalle naiz - Ibanen laguna;
txandaka degu biok - burni-urtze-lana.

MATXIN: Ni naiz gatzemallea - danetan gaztena;

guztien morroe ta - kobratzen azkena.

*(Kanta diteke ere Lekuona
apaizaren Azkeneko ola-gizona.*

Tiriki tauki-tauki - malluaren otsa.

Seigarren Agertaldia

LENAK ETA ANA

ANA: Astelena izateko, alaiegi zaudete.

JOXEPE: Ta zu gurekin ezkontzeko, gaztegi, Ana.

ANA: Zurrutak eragin al dizu, Joxepe?

JOXEPE: Zurrutak ez; zure panpoxak.

PERU: Eztakizuela zer entzun nuan atzo?

GUZIAK: Zer, zer?

ANA: Peruk batutako berria, kontu beroren bat izango da, noski.

GUZIAK: Esan, esan.

PERU: Oñatiko Kondeak errekaue egin diola Anari.

GUZIAK: Bejondaizula, Ana! (*Irriz.*)

ANA: Esaten nuan nik. Zure burutik etzala ipuin jaxorik sortuko. Ezagun dezu kondepekoa zerana.

IBAN: Ta noiz degu, ba, egun ori, Ana?

ANA: Zuek zentzun pixka bat iristen dezutenerako.

IBAN: Lorea zera, baña - etzera larrosa.

GUZIAK: Lorea zera, baña - etzera larrosa.

MATXIN: Ikusten nago zure - arpegi panpoxa.

GUZIAK: Oi, ai ene! - arpegi panpoxa.

ANA: Ezagun dezu buru - ariña zerala.

GUZIAK: Ezagun dezu buru - ariña zerala.

ANA: Azalez eder, baña - barrua ustela.

GUZIAK: Oi, ai ene! - Barrua ustela.

JOXEPE: Agur, Ana. Kondeak nai ezpazaitu, emen nazu.

IBAN: Nik ekarriko dizut eraztuna.

PERU: Ta nik amairu urreak.

MATXIN: Ta nik joko det danboliña. (*Badijoaz.*)

ANA: Zoazte ordu onean. Ola zarreako gabiak biar arte pakea izango dik.

Zazpigarren Agertaldia

ANA ETA ERRODRIGO

ERRODRIGO: *(Arnaska ta larri sartuko da alde guzieta-
ra begira:)* Au izango da Ibarretako ola zarra...
Iritxi naizenean ere, ezta ezer... Nundik deituko
ote det? *(Ate-billa.)*

ANA: Zer abil, mutiko?... Okerren bat asmatzen, ala?

ERRODRIGO: *(Izuti)* Ez, andrea, ez. Okerrik ez det egin
nai.

ANA: Zertan ago, ba, or ao-zabalik?

ERRODRIGO: Nik... nik... Ibarretako ola zarra au al det?

ANA: Bai, auxe. Nungoa aiz, mutiko?

ERRODRIGO: Oñatikoa, andre, Baltzategiko semea.

ANA: Nola dek izena?

ERRODRIGO: Errodrigo, serbitzeko. Aita arotza det eta
onera bialdu nau.

ANA: Eta orren gazterik Oñatitik oneraño etorri aiz?

ERRODRIGO: Mendietan ibiltzen oitua nago. Etxean
artalde bat badegu, ta Azkartzako basarte ta
aitz-muturrak ondo miatuak dauzkat.

ANA: Goizo asi aiz nekeak artzen.

ERRODRIGO: Bai, andre; baña nere aitaren egitekoa
bete bear det lenbailen.

ANA: Zer egikizun dakarrek onera?

ERRODRIGO: Gurdi batentzatko burni batzuek emen eskatzeko, esan dit aitak... Baña beste kontu bat ere badet emengo nagusiari esateko.

ANA: Ixillekoa ez dek izango, ta esan zak.

ERRODRIGO: Bertako norbaiti esateko da bakarrik.

ANA: Mutiko, berrogeitaka urtetan emengo mirabe nauk, eta edozein bezin etxeko, batez ere etxe-koandrea il zan ezkeru.

ERRODRIGO: Artazubiaga'tar Martin emen al da?

ANA: Baita. Or barruan dek nere nagusiarekin. Zer bear diok?

ERRODRIGO: Ara, ba... Or bidean nentorrela... *(Alde guzietara begira bildurrez.)*

ANA: Zeñen bildur aiz, koxkor? Emen etzegok sorgi-ñik.

ERRODRIGO: Ez al digu iñork entzungo?

ANA: Ez, motell. Zer dek orrela estutzeko?

ERRODRIGO: Arrasatetik onera nentoren oni ta ari Iba-rretako bidea nundik ote-zan galdezka... Estrata batean zear, sastraka batean sartu naiz, eta ezkututik bi gizonen izketa-otsa nabaitu det ustekabeen.

ANA: Zer zioaten?

ERRODRIGO: Ibarretako bidean ondo ote-nentorren galdetzera ninjoala, aien itzak gelditu naute.

ANA: Ez aiz ire barrua bereala uztutzekoa, mutiko... Esan bear dekena, esan zak.

ERRODRIGO: Ara, ba. Ibarretako etxea aipatzen zuten, eta gorrotozko itzak zerizkieten... Ezpata ta lantzaz armatuta zeuden, eta Artazubiaga'tar Martiñi txarkeriren bat egiteko asmoak agertzen ari ziran.

ANA: Ta ik zer egin dek?

ERRODRIGO: Ixil-ixillik sastraka-artean ezkutu onera etorri naiz, gizon aien ezkutu.

ANA: Ene! Gaurko Mari Gaiztoren irtera! Dorletako Ama!... Ezagutu al dituk gizon oiek? Nolako itxura ziaten?

ERRODRIGO: Nik ez ditut ezagun, baña baten izena Fortun da, nunbait. Izen ori eman dio, beintzat, besteak.

ANA: Jesus! Jesus! Zoritxar aundiren bat gañean diagu gaur. Ator barrura... Nagusi jauna!... Martin jauna. *(Deika.)*

Zortzigarren Agertaldia

LENAK, MARTIN ETA JUAN

JUAN: (*Irtenaz:*) Berriz ere garraxika asi al zera?
(*Ondoren datorcion Martiñi:*) Mirabe zar auek etxea aidatzen ederki ikasten dute.

ANA: Ai, nagusi jauna! mari Gaizto igaro danean barrura sartu izan balira, etzan orain zorigaitzik etorriko gure gain.

JUAN: Zer naste darabilzu or? Nun degu emen zorigaitzik?

MARTIN: Paketu zaite, emakume. Baña... nungoa dezu mutiko au?

ANA: Au Oñatikoa. Onek ekarri du, ba, berri txar ori.

MARTIN: Sorgiña ikusi al du?

ANA: Ikusi balu bezela. Mari Gaiztoren lagunik onena, gizonen arteko gorrotoa izan degu Euskalerrietan. Arrasate erre zendutenetik, pake-antza izan degu; baña etsaiak ez dira aztu, nunbait; eta gaur orduko kalteen ordaña beorri eskatze-kotan dira, Martin jauna.

MARTIN: Nundik dakizu ori?

ANA: Mutiko onek Arrasatetik datorrela, bi gizon ixilizketan nabaitu ditu. Ganboarrok Arrasaten egin

zenituztenak gorrotoz aipatzen ari omen ziran, eta gaur zure buru-gain emango zutela, omen-zioten, orduko eriotzen erantzuna.

JUAN: Ta zeintzuk ziran gizonok?

ANA: Ez ditu ezagutzen, baña batek besteari Fortunizena ematen omen zion.

MARTIN: Fortun... Fortun... Butron zanaren sasikumea bear luke orrek.

JUAN: Burde Butrongoa?

MARTIN: Bai, iñolaz ere... Ta i, mutiko, Oñatin zein etxetakoa aiz?

ERRODRIGO: Baltzategikoa, jauna.

MARTIN: Kondepekoak izango zerate.

ERRODRIGO: Ez, jauna. Uribarrin gure lanetik bizi geranok, nere aitak dionez, ez omen degu iñoren etsai ta aldeko izan bear. Kontu oiek aberatsenak omen dira. Guk, beartsuok, guziekikoa egiñaz bizi bearra omen degu.

MARTIN: Ez dik gaizki esaten ire aitak.

ANA: Baña orain zer egin bear degu? Ola-gizonak emen egon balira, geiago giñan geron burua gordetzeko; baña aiek gabe soil gaude ta armarik gabe, gañera. Etxera bakarrik abiatzen bada, garbituko dute berori bidean.

MARTIN: Gaur bearko det, ba, etxeratzea. Arrasaten zai izango ditut ni iristerako. Nolanai, lan ederra egin du mutiko onek, eta eskerrak eman bearrean gera beroni.

ANA: A ta bai! Aztuta nengoan, gañera zertara zeterren onera. Onen aita arotza omen da, ta gurdi batentzako burni batzuek eskatzera bialdu du.

JUAN: Emango zaizkio. Ta gero sutegian ezpata zarren bat eta satairen bat edo beste baditugu zokorata. Onelako estualdian lagun onak izango ditugu. Bada-ezpada ere, bidean lagun egingo dizut, Martin.

ANA: Ez bitez gaur atera. Arrasatera baño len etsai zitaloiek zuloren batean, otso amorratuak beela, zai izango dituzte. Obe dute gaurkoz emen lo egin, ia etsai oiek aspertuta aldegiten duten bitartean.

MARTIN: Ez, Ana. Gaur nai ta naiezkoa det joatea.

JUAN: Orretan, barrura noa. Ator, mutiko. Bide batez zuen aitak bear dituan burniak emango dizkiat. Zuk, Ana, Milia zaitu zazu ni bidean naizen bitartean.

ANA: Bai, ederki lagatzen gaituzte etxea gordetzeko bi emakume. Berokin ezer egin ezin badute, etxeari su ematera etorriko dira oiek.

JUAN: Ez naiz luzarorako aldentuko. Bereala nazue emen. Orain gabiltzan aguro.

MARTIN: Goazen bakoitza geure egitekoa lenbailen bukatzera. Bereala aterako gera Arrasateruntz. *(Emakumeak etxe-barrura ta gizakumeak sute-gira sartu bitez.)*

Bederatzigarren Agertaldia

FORTUN, ISASIGAÑA, ORTIZ,
URREXOLA, UMARAN TA AMESKARAI

ISASIGAÑA: Atozte. Erbi denak barruan ditugu. Ego-kiera oberik ez degu izango.

FORTUN: Ondo miatu al dituk inguruak, Isasi?

ISASIGAÑA: Bai, jauna. Ola-gizonak urrutiratuk dira beren etxeetara. Martin, bereala ateratzekotan sartu da oraintxe.

FORTUN: Isasigaña ta Urrexola, biok etxe-atzean ezkuta zaitzte. Zuek, Umaran ta Ameskarai,

estratan itxoin zazue. Nik bakarrik artu bear diat emen Martin zital ori. Aztuta baditu, nik gogoraziko zizkioat bere erriari ta nere senideei egin zizkien billaukeriak.

URREXOLA: Eta Barruti'tar Juan, Martiñen alde aterako balitz?

FORTUN: Naikoa asti izango dezue, zaudeten ezkuta-lekutik atera ta bien lepo-gañera iraultzeko.

UMARAN: Ganboar arrano oien kazkoa lertzeko irrikitzen nago.

FORTUN: Baña lenbizi, Artazubiaga otso orri belarriak berotu nai nizkiokek.

AMESKARAI: Neretzat nai nuke lan ori.

FORTUN: Izango dek oberik. Eta gure lana burutu bezin laster, Aramaioruntz egiñalean.

ORTIZ: Nun gordeko geran ere, asmatu bearko degu. Lenengo egunetako gure etsaien amorroa, ez da makala izango.

FORTUN: Guzia erabakia diagu aurrez. Mazkaianoko ermitan, aukerako lekua diagu ortarako. Artza-mendiko Pedrok bear dezuen jana bertara eramango dizue. (*Zaratak entzun bitez etxe-barruan.*) Eta emen dek batenbat. Utzi nazazue bakarrik. (*Bijoaz besteak.*)

Amargarren Agertaldia

FORTUN. GEROAGO, MARTIN

FORTUN: Au dek ordua! Amasei urteko egosteak noiz-bait ler egin bear ziaten. Ta ain zuzen ere, gaur izan egun ori. Nere anai Juan Alonso, Muxikako jaunak aspaldi izan duan pozik aundiena, gaur izango dik. Butrongo illak lurpetik irtengo balira, aiek liakete poza.

MARTIN: (*Ezpata ondatu bat eskuetan erabilliz, Fortun ikusteke bere artean izketan:*) Ezpata bapua bere sasoian. Gaur euli bat iltzeko ere, eztu balio.

FORTUN: (*Aurreratuz eta irri gaiztoz:*) Euliak iltzen al dabil Bañez'tar zaldun argia?

MARTIN: (*Berdin erantzunaz:*) Etsai aundiagorik ez danean, txikiei eraso bear, Fortun burrukalari bikain ori.

FORTUN: Eta Guraiatarrak Butrondarrei Arrasatera deitzen dienean, zer egiten dute Bañeztarrak?

MARTIN: Bañeztarrak orduan beren lagunak inguratzeari onak dute, etsaiak uxatzeko.

FORTUN: Ta etsaiak arpegiz-arpegi ta joko garbian ezin menderatu dituztenean?

MARTIN: Satorra zulotik ateratzeko egin oi dana: zuloaurrean su egin eta zulotik irten-arazi an gordezana.

FORTUN: Nik uste nuan Arrasateko Bañeztarrak beren erria ta etxeak erretzen zirala mutillak.

MARTIN: Ori, guraiatarrak etsaia etxe-barruan sartu zigutenean egin genduan. Arrasateko Bañeztarrak, erriko etsaiak menderatzeko, eztira laguntza eske erbestera joaten. Aiek gure erria etsaiari saldu ezpaliote, etzuten ganboarren erasorik izango.

FORTUN: Ganboarrak oso mutillak zerate burrukan, etsai bakoitzeko amar zeratenean aurka.

MARTIN: Amar generala, bakarka generala, eztegu arpegiarik gorde oñaztarren aurrean.

FORTUN: Baño legez jokatu bearrean, azeri ustelak bezela, zeuen erriari su emanaz agertzen dezue zuen billaukeria.

MARTIN: An azeru ustel bezela sartu zana, zuen aita Butron izan zan. Azpikeriz erriaren jabe egin zanari, azpikeriz irabazi genion.

FORTUN: Ago ixillik, mingain urde orrekin nere aitarik aipatzeke.

MARTIN: Butrongo Burde, Butronen sasikume argiak, bere jatorri garbia aipatzea obe izango da, noski.

FORTUN: (*Amorro biziz:*) Naikoa diagu itzez. Ire dollokeriak emen amaituko dituk. (*Erasotzen dio.*)

Amaikagarren Agertaldia

LENGOAK. GERO, ERRODRIGO TA JUAN

(*Errodrigo atean azaltzen da, eskuan etxerako burniak dituala. Fortunez azken-itzak entzun eta burruka ikusten du.*)

ERRODRIGO: (*Barrura deika:*) Juan! Juan! Azkar onera. Martin il nai zuana, emen da.

JUAN: (*Sutegitik burnitzat bat eskuan duala, agertzen da.*) Atzera Butrongo otsokume ori.

FORTUN: *(Juanek sute giko burniz atzeratu duanean, lagunei deika:)* Ia, mutillak! Bi ganboar dolo-
rren odola ikusteko gogorik badezue, oraintxe
dezue aukera.

Amabigarren Agertaldia

LENAK, ISASI, URREXOLA,
ORTIZ, UMARAN ETA AMESKARAI

FORTUN: Ja, ja, ja! Txerri-iltze ederra ikusi bear diagu
oraintxe. Gure aitarekikoa errez egin zenduten.
Aren semea ez dezue ain errez galduko. Jo muti-
llak! *(Atzetik begira gelditzen da.)*

JUAN: *(Berealako batean egundoko liskarra ta arma-
otsa sortzen da. Jator jokatu arren, Martin eta
Juan galtzen dijoaz. Juan Barruti, lantzaz buruan
jotzen dute ta lurrera dator.)* Ai, nere Milia
gaxoa!

MARTIN: Dollorkume ustelok! Bost biren aurka irtetze-
ko lotsarik eztezue.

FORTUN: Txerri-erregaluak ordañetan izaten dituk.
Gure aita galtzeko, baten aurka amar ateratzen etziñaten lotsatu urdeok.

MARTIN: Atzera, billauok! Oraindik zuen ezur madarikatuak Anbotoko arranoak garbituko dizkitek.
(Denen artean zokoratzen dute Martin.)

FORTUN: Ar zak ori! *(Buruan jotzen du lantzaz.)* Anbotoko arranoak irekin izango ditek aurrenengolana.

MARTIN: Laster arte, Burde. Nere azkena jakiten dute-nean, sugetzarra bezela zapalduko aute gureak.
(Lurrera erortzen da.)

FORTUN: Orrelaxe gal ditezela ganboar alen guztiak!
(Ezpataz iltzen du.) Itzegin zak orain sapu-ao orrekin. *(Mutillei.)* Orain Aramaio-aldera ariñeketan. Badakizue nun ezkutatu. *(Badijoaz igesi.)*

Amairugarren Agertaldia

ERRODRIGO. GERO, ANA TA MILIA

ERRODRIGO: *(Atetik burruka ikusten egon da bildurrik lotuta. Oñaztarrak ezkututzen diranean, garra-*

xika asten da:) Ana! Ana! Martin eta Juan il
dituzte!

*(Ana ta Milia arrapastaka sartzen dira. Milia aita-
ren gorputz-gañera dijoa txilioka. Emakumeak etxe-
bizitza barrutik atera bitez. Ate artara joango da Erro-
drigo emakumeei oska. Ordurarte, sutegiko atean
bego.)*

MILIA: Ai, nere aita! Zotinka, aitari musuka.

ANA: Gizonen gorroto beltza! Mari Gaizto! Mari Gaizto!
Gaur ere, egin den irea.

Antzoiala azkar jetxi bedi

BIGARREN EGINTZA

ELORRI ARGIA

(Esanaz edo abestuaz:)

(Antzoiala jaso, dena illun dala. Argi gorriak ikusleei begira piztu bitez. Illunpetik, abots baten deia dator:)

Talan! Talan! Aloñaren maldan
antziña zarrean, Zeru bera arizan
deika ezkil artan.

Talan! Talan! Aloñaren maldan.

(Piztu bitez orain antzez-tokiko argiak. Aurrean, Baltzategiko atari-aurrean dagoen tellapea degu. Atzean aurrez-aurre, tellape orri eusten dion orma. Orma-gañetik gora zutiko abe batzuek. Erdian, ormarik gabeko tarte bat kanpora irtetzeko. Orma metro t'erdikoa bedi gutxi-gorabera, kanpotik dabiltzanak, agiri gelditu ditezen.)

Lenbiziko Agertaldia

MILIA TA JUANA

MILIA: Ederra dator eguna.

JUANA: Ederregia, Milia. Legorrak egarrituta dauzka lendik alorrak, eta gaurko eguzkiak lenez gain kixkaliko ditu bazter guziak.

MILIA: Gaur ez degu, ba, errogatiba-eguna?

JUANA: Bai, Trinitate-egunak inguruko baserritarrak kaleratuko ditu, kristau-ontzak jai aundia baitegu. Orregatik, aukerako eguna degu errogatibetara jendea etor dedin.

MILIA: Ta Errodrigo, nun degu?

JUANA: Gure anai ori, bart berandu etxeratu zan. Ardi galduren batzuek-edo izango zituen, nunbait. Ordurako ni oean nintzan, eta gaur ere, goiz urten da mendira, ni jaiki baño len.

MILIA: Zuen anai orrek lan geiegi darabil seme bakarrarentzako.

JUANA: Emezortzi urtekin eztu nekerik mutillak.

MILIA: Egun bateko lana danean, ez; baña eguneroko jardunak eten dezake osasunik gogorrena, Juana.

JUANA: (*Gaitoz*) Asko kezkatzen zaituzte Errodrigoren nekeak.

MILIA: Gaiztoka asi al zera, Juana? Ain une estuan eza-gutu nuan aurrenengo zure anai ori...

JUANA: Aurten lau urte, Milia.

MILIA: Bai, Juana. Aurten, lau urte Martin eta gure aita oñaztarren eskuetan galdu zirala. Egun artan Errodrigoren berriei arreta geiagoz begiratu izan baliete, etziran ain zorigabe ondatuko.

JUANA: Errodrigok ezer gutxi lagundu al izan zien zori-txarrez. Amalau urte zituan orduan mutillak, eta zuk amairu.

MILIA: Amalau urteko mutiko batek zezakeana, egin zuan arek; kaso egin baliote, etzan gutxi lagundu ziena. Une larri artan ezagutu nuan zuen anaia, ta arrazkero, nere aitaren azkena ta mutil orren oroitza ari batean sartuak gelditu ziran nere barruan.

JUANA: Zeu munduan bakarrik geldituak, oroitza orri lotuago jarri zaitu, Milia.

MILIA: Baditeke, Juana. Gure mirabe zarra, nere aitaren eriotzak bereala galdu zuan. Geiegi maite giñuzen, gure zorigaitza ikusi ta bizi al izateko. Ordutik, nere osasuna ondatzera zetorren ain-

beste naigabe gogora-arazten zizkidan alderdi artan. Eskerrak Santxa, Martiñen andre alargunak, alaba bezela artu ninduana. Arek atera niñuan Ibarretatik eta zuenera ekarri.

JUANA: Bai, ondo ustegabeen batu dira gure biziak.

MILIA: Alargun naigabetuak zuen Errodrigoren jokaera ere, oso esker onez artu zuan, izan ere, ta biotzean sartu zitzaion mutillaren argitasuna.

JUANA: Eta gaur eztu, ba, Santxa andreak zu ikustera etortzeko eguna?

MILIA: Bai. Asko luzatu gabe, emen izango degu.

JUANA: Eta gu onen lasai, oraindik lanak atzeratuta. Banoa barrura, zerbait aurreratzen ditudan nere egitekoak.

MILIA: Bai, zoaz. Ni emen geldituko naiz, nere ongillea agertzen bada ere, norbait arkitu dezan atean.

Bigarren Agertaldia

MILIA. GERO SANTXA

MILIA: Lau urte daramazkit Baltzategin. Lau urte, nere ongille onak onenbeste mesede ta ardura nere-

gatik artzen dituala... Aita il zidatenetik, alaba banindu baño areago lagundu dit Santxa andreak. Bere senar zanari zion maitasuna, aren eriotz-ostean, nigan uztu du alargun minduak.

SANTXA: *(Bat-batean agertuaz:)* Milia! Atoz nere besotara.

MILIA: *(Besarkatzera dijoakiola:)* Andre Santxa, nere ongille maitea.

SANTXA: Azkenengo ikusi zinduztanetik, egin dezun alde! Sinisten ere, ez da errez.

MILIA: Berorren biotz onak, nere gauza guziak obetuak ikusten ditu,.

SANTXA: Larrosa bezelaxe gaztetasunera zabaltzen ari zera, Milia. Amazazpi urte dituzu.

MILIA: Ezpanitu bezelaxe. Etxe ontan guziak aurra banintz bezela zaitzen naute.

SANTXA: Bai. Ordu onean ekarri zinduztan Baltzategira. Arrazkero zure osasuna indartu, ta nere kezka bukatu zan.

MILIA: Aita galdu nuan, baño ama billatu zidan zeruak.

SANTXA: Eta nik gizona galdu ta alba arkitu nuan, Jau-nari eskerrak.

MILIA: Eztakit onenbeste ardura ta mesede nola ordainduko dizkiodan berorri.

SANTXA: Orrelaxe edertuaz eta indartuz, nere alegi-ñaak alperrik izan ez ditezen. Emakume egiña zaude, Milia, ta orain biziak bide berriak zabalduko dizkizu.

MILIA: Nik berorri eskerrak ematen bizarda beste biderik ez det ikusten.

SANTXA: Emakumeok gure etorkizunari begiratu bearra degu aldiz aurrez. Onuzkero, zure biotza esnatzeko zorian dezu.

MILIA: Nere biotzak ezer gutxi daki biziari aurrez begiratzeko.

SANTXA: Baña nik aspalditik dakit zure etorkizuna nundik zuzendu diteken. Ezagutzen dezu Eneko, nere iloba. Mutil jatorra dator, baña burua lepa-gañean ondo sartu-gabea dezu oraindik.

MILIA: Ezagutzen det, bai. Zer gertatzen zaio?

SANTXA: Ari ezer gutxi; baña neri buruak kontu asko esaten dizkit. Zu bezelako bat bear du arek burua zentzatzeko.

MILIA: Oi, andre Santxa. Neretzat geiegi litzake Kondearen besoetako dan gazte orren itzala.

SANTXA: Ori nik esan bear det; ez zuk, Milia. Kondearen besoetako ta izenekoad a gazte ori, baña

dena gutxi izango da zuretzat. Kondea ere, zure aitarekiko esker onez betea dezu, ta eztu gaizki ikusten nere asmo au.

MILIA: Bildur naiz, andre Santxa.

SANTXA: Zeren bildur, gero?

MILIA: Berorren onginaiak aurregi eraman ote-dituan gauzak. Kondeak naizen baño obetzat jotzen banau, gero nere alde orrenbeste egin ondoren, ez ote da damutuko?

SANTXA: Bildurtegia zauden, Milia.

MILIA: Enekoren neurriko ote naiz, gero?

SANTXA: Zergatik ez? MMilia, zure botzak beste zer-bait eskatzen al dizu?

MILIA: Al dakit neuk ere? Bañan nere ongileari min ematerik ere, ez nuke nai.

SANTXA: Esan zazu, Milia. Nik zure zoriona besterik ez nuke nai.

MILIA: Eta nik berorri esker ona agertzea. Baña ain zuzen, berorren ontasunak ekarridit, zer dan eztakidan azkura berri bat.

SANTXA: Zein da, Milia?

MILIA: Etxe ontara ekarri niñun berorrek. Eta nere biotza emen dabil datozkion poz eta egarriei antze-man eziñik.

SANTXA: Errodrigo al dezu kezka oien iturri?

MILIA: Arengandik datorkit alako zerbait, erdizka poz eta min, bizigarri ta bizi-ezin bat.

SANTXA: Eta Errodrigok?

MILIA: Itz garbirik ez degu trukatu, baña biotzak urrutira nabaitzen du zerbait.

SANTXA: Ai, Milia! Nere alaba maitetzat artu zaitut. Begira zazu ondo zure biotzak itxumenen bat sortu ez dezaizun.

MILIA: Ai, nere ongille ona! Nai nuke, ba, asmatu; ta batez ere, berorren borondate aundi orri zor diodan legea gorde. Baña au lana.

SANTXA: Enekorekin beste bizia zenduke. Ondasunez gainka, ta senide-tarte garai-garaikoa zu ta zure ondorengoentzat.

MILIA: Orrek ez nau berotzen; berorren amesak aus-teak ematen dit min.

SANTXA: Ondo da, Milia. Kontu au gaurkoz onela utzi dezagun. Egunak eguna dakar, ta ikusiaz asmatuko degu ondoen nundik diteken biderik egokiena.

MILIA: Eta Konde jauna asarratzen bazaigu?

SANTXA: Buruz jokutzen badezu, biok artzen degun erabakia Konde jaunari aurrez agertuko diot. Zeruak erakutsiko al digu komeni zaiguna.

MILIA: Bai, zeruak argitu bearko nau, ainbeste maite nautenei naigaberik ez emateko.

SANTXA: Ederki, ta nin dira etxeakoak?

MILIA: Errodrigo mendira irtena da goizetik. Besteak or barruan dabiltz. Oraintxe dator Juana onera.

Irugarren Agertaldia

LENAK, JUANA TA LOPE

JUANA: (*Agertuaz:*) Emen al degu andre Santxa?

MILIA: Iritxi-berria da oraintxe.

JUANA: Ongi etorria gurera. Aita ere oraintxe dator barrutik.

LOPE: Jaungoikoak deiola egun on, andre Santxa.

SANTXA: Arek deizuela zueri ere oroat. Onik al zerate?

LOPE: Ezin obeto, ta berok?

SANTXA: Gu ere ondo, Jaunari eskerrak. Milia oso azia ikusten det.

MILIA: Eztira urteak alperrik igarotzen.

SANTXA: Etxe ontan asko irabazi dezu, Milia; ta oso pozik nago onera ekarri zinduztalako.

LOPE: Baña ezpedi emen egon. Bijoia barrura ta an patxara obean egongo da. Zerbait artzeko gogoia ere, egingo zitzaion onuzkero. Zu, Milia eramán ezazu Santxa andrea jatokira, ta emaiotzu dagoenetik.

MILIA: Betor, Andrea, bideko autsak astintzera bada ere.

SANTXA: Goazen, ba. (*Lope ta Juanari:*) Berealaxe nator.

Laugarren Agertaldia

LOPE TA JUANA

LOPE: Ta gure mutillik ez al da agertu oraindik?

JUANA: Ez da emen otsik. Atzotik ez det ikusi.

LOPE: Ori ere. Etzekiñat, etzekiñat.

JUANA: (*Miliakiko maitasunaz ari zaiolakoan:*) Gazteta-ko kontuak, badakizu, aita.

LOPE: Esna ames egitea?

JUANA: Ames ona izan ezkero.

LOPE: Txorakeriak! Irudipen utsak.

JUANA: Ez det uste, ba, dena irudipena danik.

LOPE: Ik ere bai al dakin?

JUANA: Bien sasoia ta alkarri dioten legea ikusteko, begiak zabaltzea naikoa da.

LOPE: Bien kontua?

JUANA: Jakiña, ba, aita. Miliak Errodrigoren neke ta lanen kezka geitxo duala, ta Errodrigok Milia begi onez ikusten duala, garbi dago edozeñentzat.

LOPE: Ala ere!... Zuek, emakumeok, gazte zeraten bitartean batez ere, beti lelo batera jotzen dezue.

JUANA: Ez al diot, ba, egia?

LOPE: Nai denana izango den, alaba. Baña nik beste arazo bat nerabillean buruan.

JUANA: Zer arazo degu, ba, jakin al baditeke?

LOPE: Bart gure mutil ori nastu-samartuta etorri unan. Ardi galduen billa Azkartzan gora ta bera, illunak jo zionan, nunbait, eta gero amesen bat egiña den, iñolaz ere.

JUANA: Zein ames?

LOPE: Arantza baten gañean Andre Mari berriren bat, Jesus besoetan duala, agertu zaiola-edo... Al

zekiñat zer?... Bart berandu sartu unan etxera, ta logure niñunan kontu luzerik entzuteko. Gaur goizean, errogatibak baño lenago, berriz elorri ori ikustera joana den.

JUANA: Zeruko Ama! Egia ote?

LOPE: Bai zera!... Bere onetikirtenda etorri unan mutilla. Ardiak errezegi galtzeak zekartzen gaitz oiek. Arreta izaten nekatzen eztana, oñetakoak urratzen izerditu bear.

JUANA: Ta noiz arte igo da, ba, gaur mendira.

LOPE: Esan diñat: errogatibatarako itzultzekotan joan den. Andre Mariaren itzak erriko apaiz eta agintariei ta erri osoari esan bear omen zizkion. Ixillik egoteko esan zionat, baño ura etzegon ixiltzeko. Baltzategikoen artean ez diñagu txoroaizeak jotakorik, baño Errodrigo ori gaur erotzat joko ote duten, bildur naun.

JUANA: Ta zergatik ezta, ba, egia izango? Diona diola, errez garbitzeko auzia duori. Bere buruko asma-keta ezpada, besteak ere an ikusiko dute egia. Ene! Miliari esateko irrikitzen nago.

LOPE: Bai, emakumeen esku dagoen berriari, laster sortuko zaizkion egoak. Baña kontu, gero, etxe-

koetatik kanpora berri au zabaldu! Eztiñagu besterik bear denen aotan ibiltzeko.

JUANA: Errodrigoren aoz entzun arten, ez noa beste iñori itzik aipatzera. Noizko itzuliko ote-zaigu mutil ori?

LOPE: Mutilla baño lenago zetozen Urrexolako Pedro ta Araozko Joanes beren alabekin. Ago i emen. Ni apur batean atarira natxian errogatibatara datozen jende orrekin itz bi egitera. (*Bijoa.*)

Boskarren Agertaldia

JUANA. GERO MILIA

JUANA: Miliak artuko duan poza! Gure mutillari Andre Maria ta Jesus agertu!... Egia esan, zintzorik bada, gure Errodrigo bat. Baña onen berri aundia egitzat artzeko, kontuz ibilli bearra degu. Bestela auzoak gure lepotik parre egingo du.

MILIA: (*Barrutik agertuaz:*) Oraindik emen al zaude, Juana? Orduak aurrera dijoaz, ba.

JUANA: Santxa andrea bakarrik utzi al dezu?

MILIA: Txukuntzen gelditu da. Gero gurekin errogatibetara joan nai du-ta.

JUANA: Andre maitagarria degu emakume ori.

MILIA: Eztakizu dena. Beti nere onari begira dabil. Gaur ere, bazuen neretzako biotzaldi bat.

JUANA: Zer ba?

MILIA: Nere etorkizunari buruz mesede berriak asmatzen ari da beti. Bere illoba Eneko, kondearen izen eta besoetako mutilla, neretzako ustean daukala, esan ez dit, ba!

JUANA: Ori da zoria, Milia! Ain etxe oneko semea!

MILIA: Ai, Juana! Nik ezer esan gabe ere, badakizu neretzat kezka berria izango dala alde ortatik.

JUANA: Zer bada?

MILIA: Ondo asko dakizu, nere biotzak nor duan auke-ratua.

JUANA: Ta zer esan diozu Santxa andreari?

MILIA: Nere ongillari ezin nezaioken egia besterik esan.

JUANA: Ta berak?

MILIA: Kondeari ere esana diola bere asmoa, ta Kondeak ere otnzat emana duala-ta.

JUANA: Kondea tartean dala, ezingo dezu atzera egin.

MILIA: Ez Santxa andrea ama baño obea ezplaitz nere-tzat. Ondo begiratzeko esan dit, eta nere ona besterik ez duala nai. Bion artean bestela erabakitzen badegu, bera da Kondeari itzegitekoa.

JUANA: Emakume biotz aundikoa!

MILIA: Ta orra nere istillua. Nere ongillearen uste onak galtzea, mingarri zait alde batetik; eta beste aldetik nere biotzak gogor eskatzen dit beste bidea. Au lana, !Juana.

JUANA: Zerua lagutnzero datorkizula uste det erabaki ortan. Eztakizu asko, Milia. Zure zai nengoan emen, ta ia aztu zitzaidan esateko nizun ixilleko bat.

MILIA: Berri txarren bat al degu?

JUANA: Txarrik ez. Zer aterako ote dan eztakigula.

MILIA: Garbiago esaten ezpadezu...

JUANA: Errodrigo datorrenean, obeto jakingo degu.

MILIA: Okerren bat, ala?

JUANA: Ez, Milia. Bakarrik, aitari eztiola onik egin.

MILIA: Onezkero Gatzagan gora da berri ori.

JUANA: Ez, ba. Azkartzan gora da izan da gertaria.

MILIA: Aitz-arte aietan zer gerta diteke jakingarririk?

JUANA: Gertari aundia, egi aterako balitz. Arantza baten gañean, Andre Maria bere Seme Jesus besoetan duala, agertu omen-zaio Errodrigori.

MILIA: Noi izan da ori?

JUANA: Atzo illuntze aldera ardi-billa zebillela.

MILIA: Jaungoiko ona! Zeruak onenbesteko zoriona ote dakarkigu?

JUANA: Zorion betea litzake guretzat. Ezta ala?

MILIA: Nere biotzarentzat bete-betekoa.

JUANA: Aita buldur da, ba.

MILIA: Zergatik, gero?

JUANA: Mutilla amesetan asi ote dan, eta jendeak txorotzat joko ote gaituan. Eztu iñola ere albiste ori zabaltzerik nai.

MILIA: Nolanai ere, Santxa andrea etxeko bezela degu, ta zerbait esan bearko diogu. Gertari ori egi aterako balitz, nere biotz-arazoa erabakia legoke. Zeruko Ama, ala gerta dedilla.

JUANA: Gauden ixillik Urrexolako Martiña ta Araozko Andresa barrura datoz-eta.

Seigarren Agertaldia

LENAK, MARTIÑA TA ANDRESA

MARTIÑA: (*Sartuaz:*) Jaungoikoak egun ondeizuela.

MILIA ta JUANA: Baita zuri ere, Martiña.

ANDRESA: Egun on, gazteok. Jardun-giro al degu?

MARTIÑA: Baltzategin noiz ez?

JUANA: Baltzategin beste etxetan bezela.

MARTIÑA: A! Ori ez, orratik. Baltzategin gurean baño giro ohea du biziak.

JUANA: Zer dala bide?

ANDRESA: Martiña, Baltzategin denak itxu zeuden.

MILIA: Jaunari eskerrak, etxe onetan guziok begiz argi gaude.

ANDRESA: Noiz ta nola, Milia.

MILIA: Lotan egon ezik, beti, Andresa.

MARTIÑA: Ago ixillik, Andresa. Ez al den ikusten belarriak goza-zai daudena?

MILIA: Belarrietarako gozagarriak ere ba al dira?

MARTIÑA: Esango nuke. Mutil jator bat inguruan dabilenean, nor ez da argitzen?

ANDRESA: Ori esan, Martiña.

JUANA: A! Ortik al zenduten itza? Urrexola ta Araotzen ere, badituzue jatorrik asko.

ANDRESA: Ango mutillak, Juana, auzorako ditun ona; baña etxerako ura baño gezagoak.

MARTIÑA: Ori esan, Andresa. Araneko Joxek zeñen azkurea darabilen biotzean, bazekin norbaitek.

ANDRESA: Urruti eztagoen batek, gañera, Martiña, e?

JUANA: Gaizto t'edi zatozte, gero, gaur.

MARTIÑA: Berriz entzuteko gogoa al den, Juana? Guk naikoa entzun genionan, ba, atzo Joxeri.

ANDRESA: Bai orixe! Arek eztaukala saltzeko Baltzategi.

JUANA: Ixilduko alzerate, berritxuok?

MILIA: Orrelakorik! Zirikatzaile pareta sartu zaiguna gaur etxean.

ANDRESA: Ona emen bestea! Ezpageneki bezela.

MILIA: Zer dakizue, gero, zuek?

ANDRESA: Zera! Ederki daudela gaztañak zakuan.

MARTIÑA: Eta mutilla eskuan.

MILIA: Bertsolari biurtu al zerate?

JUANA: Jolasgure bizia ekarri dezue gaur.

ANDRESA: Guk jolas eta zuek solas. Zer dio Errodri-gok, Milia?

MILIA: Mendian da ardiei begiratu bat ematen.

ANDRESA: Badu arek ardiak baño aurrekoagorik.

MILIA: Jakiña! Aita, arreba, etxea ta abar.

ANDRESA: Abar orretan utzi dezula uste det aurrena.

MILIA: Bai ote?

MARTIÑA: (*Andresari:*) Utzion, neska. Naikoa gozatu dizkin belarriak-eta.

ANDRESA: Erreza den gozaten, mutil baten biotza irabazi danean.

ANDRESA: Baña emen zetozen gure gurasoak beste kezka batzuekin.

MILIA: Geldi zaitzte emen. Ni Santxa andreak zer dion ikustera noa. (*Bijoa Milia.*)

Zazpigarren Agertaldia

LENAK, PEDRO, JOANES TA LOPE

LOPE: (*Gazteak bereizi geldituko dira ixil-izketan.*)
Zatozte pixka batean barrura, oraindik badegu astia-ta.

PEDRO: Aurten denok ere, asti geiegi izango degula, uste det. Lurra arria baño gogorrago degu lane-rako.

JOANES: Eta gariak? Ezin atzerago etorri. Aurtengo lastoak su gutxi egingo dute bidetan.

PEDRO: Bidean ikusi deguna, negar egitekoa da bene-tan. Bazter guziak erreta daude.

JOANES: Urteak izango dira onelako legortarik ikusi eztegula.

LOPE: Gure ezagueran beste onenbestekorik ez degu ezagutu, ez.

PEDRO: Eta Kondeak zer dio?

LOPE: Arek bere etxe-alde jokatuko du.

JOANES: Ez al du, ba, berea?

PEDRO: Bai bere etxea, baña ez gureak; eta arek denak beretzat nai ditu.

LOPE: Aundizki oiek agintze ori odolean dakarte. Ni, egia esan, iñoren alde berotzekoa ez naiz.

JOANES: Gauzak Jaungoikoak egin dituan bezela artuko bageniut, guziok pakean izango giñake. Goi-koak goian eta bekuok beian gauden eta kito!

PEDRO: Ezagun dezu, bai, Joanes, kondepekoa zerana. Emen Jaungoikoak denok berdiñak egin gaitu. Goi ta be oiek, gizonon asmaketak ditugu. Ni ez naiz Kondearen etxean sartzeko zale; Kondea ere, ez dedilla gur etxeetan sartu.

JOANES: Kondeak ez al ditu, ba, bere eskubideak gorde bear?

PEDRO: Bereak bai, baña ez besterenak. Zergatik ibilli bear du jaun orrek erriaren jabetasuna zapal-tzen? Gure alkatea, geuk dakigu zein diteken.

JOANES: Bera de gure lurren jabe.

PEDRO: Ez lur guziarena; ta gañera, or jasotzen ditu ainbeste errenta ta amarren lur oiegatik. Zor zaiona ordaindu ezkerro, eztu iñork beste esku-biderik. Zein da ori, erri guziaren lotsagarri dan urkamendia jasotzeko?

LOPE: Ara mutillak! Ezpai oietatik ez degu beñere ezer onik ekarri, ta ni gure errietan ditugun asarre oien etsai nazue beti.

PEDRO: Zeñi etzaio, ordea, odola berotuko ganboar oiek egin dituztenak gogoratuta? Arrasateko suak eta eriotzak aztutzekoak al dira?

JOANES: Eta oñaztarrok garbi al zaudete? Zertarako deitu zuten Butrongo otso-jendea gure artera? Ez al zenekiten Arbolantxatar Santxori Butron odol-zale arek eman zion azkena? Oñazea luzatzearren aizto txiki batez lepoa ebaki gizonari, biozgabe arek!

LOPE: Nik esaten dedana: guri aundizki oien etxetan etzaigula ezer galdu, alde batetik; eta bestetik, gorroto itxua dabilkie nagusi, ta gorrota ez da

kristau-legea. Jauntxo oiek alkarrekin asarre badabiltz, ez gaitzatela gu beren auzitan nastu. Eta gañera, norbaitek eten bear du gorroto-kate ori; norbait barkatzen asten ezpada, gure errien ondamenak eztu azkenik izango. Artazubiaga'tar Martiñi ta Barruti'tar Juani odol otzean eman zioten eriotzak, eztu izenik. Eta orain, emen degu Milia gaxoa, gizonen gorrotoen ondorena ordantzen. Baña emen berriketan gauden bitartean, errogatibak kalera aterako zaizkigu.

PEDRO: Ala da. Berandutzen ari zaigu, ta bagoaz aurrera elizara orduz iritxi gaitezen. Ba al zatoz, Joanes?

JOANES: Bai. Zerua errukituko al zaigu euria bialduaz.

LOPE: Gorrotoz galduak gabiltzan artean, zerua itxia izango degula deritzat.

PEDRO: Ez al zatoz gurekin, Lope?

LOPE: Ni, Errodrigo menditik etorri-zai gelditzen naiz. Bereala gera zuekin.

PEDRO: (*Alabari deituaz:*) Martiña, elizarako ordua degu.

Banoa, aita; ta zu, Juana ez al zatoz?

JUANA: Zoazte aurretik. Gu Erodrigo datorren bezin laster, or gera.

ANDRESA ta MARTIÑA: Agur, ba, ta gero arte.

JOANES ta PEDRO: (*Loperi:*) Agur, Lope. (*Bijoaz.*)

Zortzigarren Agertaldia

LOPE TA JUANA

LOPE: Kezketan natxegon, Juana.

JUANA: Zergatik, ostera?

LOPE: Gure mutillak geitxo luzatzen dualako bere etorrera.

JUANA: Bide luze ta latza du, aita. Onuzkero aurki dezue emen.

LOPE: Atzoko amesetatik sendatuko al unan.

JUANA: Zein amesetatik?

LOPE: Dalako Andre Mari berri orrenetatik.

JUANA: Eta guzia egia balitz...

LOPE: Emakumeok siñisberagi oi zerate.

JUANA: Eta gizakumeok siñisgogorregi.

LOPE: Bera etorri arte, ixillik euki dezagun, beintzat.

JUANA: Len ere kanpokoan aurrean ixilik egotea kosta zait ederki.

LOPE: Ori siñisten diñat, alaba. Ixillik egotea, ezten ire gogoko lana.

JUANA: Ain arrigarria da, izan ere, gertaria.

LOPE: Irudipen-utsa, Juana. Sasi-arte artan gauza onikbilla ditekenik ere...

JUANA: Zeruak artarako aukeratu ezkerro, ez da eziñik. Etxe-barruan oiñ-otsa somatzen det. Santxa andrea ta Milia atarira datozkigula, uste det.

Bederatzigarren Agertaldia

LENAK, SANTXA, MILIA TA ERRODRIGO

SANTXA: (*Barrutik agertuaz:*) Oraindik Errodrigoren zai?

LOPE: Bai, andrea. Emen gaude kezketan.

MILIA: (*Barrutik agertuaz:*) Oraintxe ez det, ba, uste urruti danik.

JUANA: Ene, ta bai! Emen degu mutilla.

MILIA: Zer ote dakar esateko?

ERRODRIGO: (*Arpegian agiri du bere barruko arripe-na.*) Errogatik atera al dira?

LOPE: Ez, mutil. Izerditan ator.

ERRODRIGO: Orratik ere, bildur nintzan berandu ote nentorren.

LOPE: Ez al dek iñor ikusten?

ERRODRIGO: Andre Santxa emen? Nolatan gure etxean, andrea?

SANTXA: Milia ikustera ta bide batez zuekin egotera etorri nauz, Errodrigo.

ERRODRIGO: Poz aundia det berori etorria. Onela obeto asmatuko degu zer egin.

LOPE: Goizeko argiak ire Andre Mariori uxatuko zian,noski.

ERRODRIGO: Bai zera! Atzo bezin argi an dago utzi nuan elorri-gañean bertan. Zeruko Ama! (*Iku-siaren gozotan begiak bizitzen zaizkio.*)

LOPE: Andre Santxak ezer ba al daki?

SANTXA: Miliak esan dit guzia.

JUANA: Nolakoa da, Errodrigo?

MILIA: Ta Jesus besoetan al du?

SANTXA: Etzazue geiago nastu mutilla, gazteok.

ERRODRIGO: Ikuste arek ezin dezake iñor nastu, andre. Barru guzia zeruko arradaz piztuta uzten du.

LOPE: Paketu adi, gizon. Bart itz-erdika bakarrik entzun nian, eta goazen poliki-poliki gertari edo

ames dalako ori garbi jakiten degun azkenerako.

JUANA: Bai, Errodrigo. Esaiguk nola billatu uan mirari ori.

ERRODRIGO: Lagatzen al didazue, ba, itzegiten?

MILIA: Egia. Arnasa ar zazu aurrez; nekatuta zatoz-eta.

ERRODRIGO: Ez nuan alakorik uste, egun guziko jardunez arikatuta, ardiak kontatzen asi nintzanean.

SANTXA: Aitz-mutur oietan gora ta bera, edozein aunatuko litzake, gazte.

ERRODRIGO: A, ze loa bota bear dedan! -esan nuan nerekkiko-. Baña leku onean. Etzegoen lo egiterik. Konta ta konta... Ez alperrik!... Bost ardi gutxiago artegian. Zein izango? Ta Txuria, Buztanmotxa, Nabarra, Mokobeltx eta Uxkurra... Ardirik onenetakoak bostak.

LOPE: Egunez txoriei begira ibilliko intzanda, gero arratsean oñak dantzatu bear.

ERRODRIGO: Sekula baño arreta aundiagoz zaitu nuan atzo artaldea. Gure txakurrak ere, etzuan ordurik galdu. «Jai, onera!... Jai, ari!...» Ustez, artaldea osorik nualakoan txabolaratu nintzan.

JUANA: Eta Andre Maria nun zegoan?

ERRODRIGO: Ago pixka bat; ortara natxian... Jo gora, jo bera; ardien aztarranik ez... Jauna! Nun geldi ote zaizkit? Azkartza-aldean ote?... Aloña-aldean ote?... Gezaltzan barrena onenean?... Nere ibilli aspergarriak.

MILIA: Artzai-lan oiek neke geiegi sortzen dizue, Errodrigo.

ERRODRIGO: Arkitu dedan mirariak, neke guziak ederkiraindu dizkit, Milia... Alako batean, Azkartza-aldeko sakon-une batetik arran-otsa otezan, iruditu zitzaidan... Urruti zan zintzarri aren otsa... Pauso batzuek... geroago ta biziago zekarren aizeak... Aloña-maldan dek, bada... Gure ardien kanpai-otsa ote?... Ba-diteke... baña, ez! Soñu ura biziagoa zan... Zer ote zitekean?... Ba-nago, ez nago... Aitz-mutur eta sas-traka, elorri ta arantza... Banoa bizi-bizi soñu aren ostera... Andik dek, ba... Ene! ta zer da argi ori?... Zintzarri-otsa datorren aldetik dek, gañera... Urrerago ta kezkatia go ninjoan... Begiak igurtzika zokoratu naiz... Nun ari da soñu ori?... Ontan, nere barru guzia ikara, lurrean josita gelditu nintzan... Elorri baten gañean, zeruko agerpen zoragarria neukan nere

aurrean. Andre Maria, arantza-gañean, zeruko argia zeriola, ta besoetan bere seme Jesus zuala, begi gozoz neuri begira!... Elorri-oñean zintzilik kanpaitxo bat ixiltzeke jo ta jo ari zan.

LOPE: Aizeak dantzatuko zian-da.

ERRODRIGO: Etzan aize-txintarik ere zoko artan.

JUANA: Nork eragiten zioan, ba?

ERRODRIGO: Iñork ere ez. Berez ari unan jo ta jo eten-gae.

MILIA: Zeruak eraginda, noski, Errodrigo.

ERRODRIGO: Bai, Milia. Zeruak eraginda; eta nere poza betetzeko, bost ardi galdok mirariaren inguru pake-paketsu larrean.

LOPE: Ardien arran-otsa izango uan ik entzuna, mutil.

ERRODRIGO: Ez, ba. Bostak zintzarririk gabe zeuden egun artan, ain zuzen ere... An nengoan erantzean nere barruko arrada menderatu ezi-ñik... Begiratu Andre Mariari, begira Jesusi, begira zintzarriari, begira ardiei... Enintzan bereala nere onera etorri.

SANTXA: Zenbat mirari erabat!

ERRODRIGO: Gizona arritzeko lain, Santxa andrea. Azkenik belauniko jarririk, zeruko Amari begira esan nuan nere kiko: «ARANTZAN ZU?» Eta

Andre Mariak begi gozoz eta itz gozoagoz erantzun zidan barnera.

MILIA: Zer nai digu zeruko Amak?

ERRODRIGO: Toki artantxe Ermitatxo bat jaso dezagula; ta Berak andik Euskalerria zaituko duala, zion.

MILIA: O, bai! Lenbailen jaso bear diogu alik eta ederrera.

ERRODRIGO: Illuna zetorkidan, eta etzegon egoterik... Nere Irudi maitea arbastaz estali, ardiak zeruko Amaren zaipean utzi, ta bidez-bide etxeratu nintzan bart... Gabak etxera baño len artu ninduan arren, nere barrua argitan nekarren.

SANTXA: Ta gaur goizean zer egin dezu?

ERRODRIGO: Ez neukan pakerik berriro zeruko Ama ikusi gabe. Tellatxobatzuek eta lau egurtxo artuta, joan naiz argia zabaldu bezin laster. An zegoen nere agerpen zoragarria, an ari zan arrana soñu ta soñu berez... an zeuden bost ardiak elorriaren inguru ausnarrean... Nere lana amaitu, ta or etorri naiz itoka Oñatiko erriari berri one ematera.

LOPE: Ez aiz, baña, kontu orrekin iñorengana joango!

ERRODRIGO: Zeruko agindua betetzeke ezin dezaket utzi, aita.

LOPE: Erotzat joko aute, seme.

ERRODRIGO: Elorri-gañeko agerpenak erakutsiko die egia.

LOPE: Kondeari gogozko izango al zaiok?

SANTXA: Kondearena, nik egingo det, Lope. Mutillak diona egi ateratzen bada, denen biotzak bereganatuko ditu.

MILIA: Zeruak ekarri du etxe ontara gaur, une larri ontan laguntzera, Andre Santxa.

LOPE: Mutil, itxoin zak egun batzuetan gauzak obeto aztartu arte.

ERRODRIGO: Zeruak eta gure premiak ez daude itxoi-teko, aita. Zeruko Amaren agindua bete-orduko, gure legorteak jai du.

MILIA: Ene! Ta errogatibak atereak izan bear dira. Gure jardunean, ordua pasa zaigu. (*Urrutira Krieleisonak entzungo dira: Sancta Maria, ora pro nobis...*)

JUANA: Ta urreratzen datoz letariak. Gerta gaitezen datozenerako.

ERRODRIGO: Onuzkero ementxe itxoingo diet, eta gure etxe-aurrera iristen diranean, entzungo

dute oñatiarrak zeruko Deia. (*Milia ta Edrrodri-
go bakarrik gelditzen dira pixka batean. Bes-
teak etxe-barrura zabaltzen dira.*)

MILIA: Zerua etxean sartu zaigu, Errodrigo.

ERRODRIGO: Zerua ta zu, Milia.

MILIA: Etzazu zerua onen gauza utsaz nastu.

ERRODRIGO: Zeruko Ama pake ta maitasun-eskeinka datorkigu euskaldunoi, Milia. Gorrotoak galdu zituan gure aurretikoak; maitasunak zori berri bat dakarkigu orain. Banoa, Milia atal-aurrera prozezioa nun ote dan ikustera.

JUANA: (*Barrutik agertuaz:*) Nun da Errodrigo?

MILIA: Atal-aurrera joana da, prozezioa nun datorren ikustera.

LOPE: (*Barrutik agertuaz:*) Baña mutil orrek zer egin bear digu?

SANTXA: (*Barrutik agertuaz:*) Utziozu, Lope, zeruari bere lana egiten.

ERRODRIGO: (*Berriz agertuaz:*) Emen dira errogatibak. Atariko orma-gañetik barreiatu bear diet gure erritarrei zeruko albistea.

*(Denbora guzian gutxi-asko entzuten
etorriko da errogatibetako kantua
geroago ta argiago.)*

(Jendea etxe-aurretik igarotzen asten da:

Omnes Patriarchae et Prophetae, orate pro nobis...)

ERRODRIGO: *(Atariko orma-gañera igota, kantua eba-
kitzen du, esanaz:)* Oñatiarrok: Zertan zabilzate alperrik errogatibetan? Ama Birjiña berria agertzen eman zaigu Gezaltzan gora. Atozte nerekin ta ikus zeuek zeruko Mirari arrigarria. Ama Birjiñari dagoen lekuan aterpea jaso arte, eztegu euririk izango.

(Arantzazu-aldean abestiz eten itzak.)

IRUGARREN EGINTZA

PAKEA!

Antzez-oiala jasotzerako itzali argi guziak. Beti bezala bi argi gorri ikusleei begira antzez-leku-aurrean. Ez da besterik ikusten. Ontan astiro entzun bedi Antziñaren abotsa berriro:

Orra eliza jaso,
amaika aldiz eraso,
zenbat leien arazoa!
Biotz bakoitzan begira zazu
ermitatxo eroso.
Begira, Ama gozoa,
zure esanera eioa.
Euskal-Kondaira osoa.

Itz oiek buka-bezin laster, piztu antzez-lekuko argiak. Aurrean agiri degu Arantzauzko lenbiziko Ermita. Ingurua elorri ta arantzez josia. Aitz-arte leizearen albo. Arrasate ta Oñatiko jendeak alkartuta bukatua dute galtzara. Ermitagintzako Jaia da. Arrasate ta

Oñatiko erromesak bidean gora datoz Ermita berriko jaira.

Lenbiziko Agertaldia

PEDRO ETA JOANES

PEDRO: Sinistu al diteke?

JOANES: Ez da errez, Pedro. Malkor auetan onelako Ermitagintza.

PEDRO: Or daukagu, ba, aurrean Ermita. Amaika aldiz ibili giñan aitz-arte auetan onelako ames aundi-rik gabe.

JOANES: Izan ere, zeruak bakarrik egin zezakean one-lakorik. Legorte luzearen azkena ain azkar eta ain betean etorri zan. Poz da orain soro ta zelaiak ikustea.

PEDRO: Bai, gizona. Ama Birjiñari aterpea egin genion bezin aguro, an ziran laño-pillok gure buru-gañean. Egundo ez naiz ain gogoz busti.

JOANES: Bazan, ba, orduan ere Errodrigoren itzak parrez artu zuana pranko.

PEDRO: Bai, etziran denak siñisbera.

JOANES: Neu ere, Trinitate-arratsalde artan Errodrigo gizajoari okerren bat sortuko ote zitzaion, bildur nintzan; baña aren ondoren joan zan erriak, gazteak bezelaxe ikusi zuan agerpen zoragarria, ta arrazkero guztiok berotu giñan aren esanetan.

PEDRO: Lenbizikoan etziñaten, ba, bide onen alde. Kondeak eta aren aldekuok, gure lanen etsai ziñaten.

JOANES: Urte askotako gaitza degu ori euskaldunok: guzion alegiñak bat egin eziña, alegia; Oñati Arrasateren aurka; Gebara ta Butron, Lazkano, Loiola ta Balda beti alkarren etsai. Gorrotoak sustrai aundak zituan gure errian.

PEDRO: Eskerrak Kopradiak bidegintza gogoz artu zuanari. Kondearen gogoz, mirarizko Ama Birjiña au ere, bere baratzera jetxi bearko genduan.

JOANES: Bai, baña zuek ere etziñaten zeruagatik bakarrik asi bidegintzan. Aurrena, kondearen mendetik iges egitearren artu zenduten bidea egiteko asmoa. Eneko Gebara jauna ezin zenduten ikusi.

PEDRO: Miraria emen agertu zan, Joanes. Ermitak ere emen bear zuan, beraz. Zertan ibilli zeruaren borondatea okertzen?

JOANES: Kontu oiek guziak aztuta daude orain. Eneko, gure kondea bera izan da azkenerako bidegintzarako ta Ermitarako diru-laguntza ematen aurrena. Gaur denok anai-arrebak gaituzu. Au da neretzat emen gertatu dan miraririk aundiena.

PEDRO: Ez al deikezu! Arrasate ta Oñatiko jendea alkartuta auzo-lanean, alajaña! Ta erri-barruan ikusten deguna? Arrasaten Guraia ta Bañeztarrak lakarri eskuak emanda. Oñatin ere berebat, gaur arte ain etsai izan diran Murgia ta Garibaitarrak betiko lagunak izan balira baño areago batuak.

JOANES: Ori bai zeruak bakarrik iritxi zezakeala. Gure alegin guziak alperrik izango ziran orretarako.

PEDRO: Bai, Joanes. Azken-gizaldi auetan Etxe Nagusietako jabeak gorrotoa odolean sartuta zuten; eta gure mendi ta erriak odoloren ujolaz itoak genituan. Gaur pake zoragarri baten egunsenti argia eldu zaigu.

JOANES: Ta pake orren iturri gozoa, emen eman zaigu zorionez.

PEDRO: Nun eta *Arantzazun*, gizona! Iñork aditu etzuan basamortu au, Zeruko Amaren agerleku.

JOANES: Ori esan! Jaungoikoaren eskua dabilkigu emen garbi asko. Iñunezagun etzan aitz-arte onen izena, gaurtik bazter guzietara zabalduko zaigu.

PEDRO: Bai euskaldunik dan tokietan, beintzat.

Bigarren Agertaldia

LENAK ETA LOPE

LOPE: (*Agertuaz:*) Goiz ibilli zerate gaur, lagunok.

JOANES: Egualdi eder au ikusi ta nor egon etxean, Lope?

PEDRO: Egun onetan, ala ere. Lengo tellape arlote-ordez, Ermita eder au idikitzeko aukeratu diguten eguna, alajaña! Ez geunden etxean gelditzeko.

LOPE: Neu ere poz orretan atera naiz, ba, etxetik; eta gure antzera etxe guzietan. Bideak jendez beteak agiri dira.

JOANES: Bidegintzan alkartu diran erri biak, emen batuko zaizkigu gaur bete-betean, Lope.

LOPE: Bai, Joanes. Eta arritzekoena, gaur arte ain elkarren etsai amorratu ibilliak, adiskidetzeko bidean sartuak. Murgia ta Garibaiko etxejaunak, pakeak egitera ta mai batean exertzeko asmotan datoz, diotenez.

PEDRO: Orixe ikusteagatik bakarrik etorri zitekean malkor ontara.

JOANES: Eta Arrasaten ere, beste orrenbeste gerta ote dan, diote.

LOPE: Baita ere, Artazubiaga'tar Martin oñaztarrak il zutenetik, badakizue nola ibilli diran erri aretan.

PEDRO: Martiñen andre alargunak aren eriotz-biaramonean abestutako itz suminkorrek etziran gozoak izan. Esku batean gezia ta bestean suzioria artu ta Aramaio guzia erreko zuala, zion.

LOPE: Aren esanera zeuden Bañeztar guziak. Bestaldetik, berriz, zeñek baretu Guraiatarren aldekoak? Onela ikusi ditugu beti, Bañez Ganboarren alderdiko ta Guraia oñaztarren alde seta bizian.

Gaur oso besterik dira, itxura danez, eta ordu gutxi-barru, emen ikusiko ditugu anai-eskua elkarri luzatzen.

JOANES: Kondea ere etortzeko omen da.

LOPE: Ala dio Ozaetako Santxa, Artazubiagaren alargunak. Badakizue gizona il ziotenetik nolako artu-emana degun. Egun artan, uste gabe, gure Errodrigo Ibarretan arkitu zan; eta Martin eta Juanen azkena bere begiz ikusi zuan.

PEDRO: Orrela entzuna dizugu.

LOPE: Gerora Santxa andreak, Barrutiko Juanen alaba umezurtza, bere zaipean artuzuan. Gizon zana-ren alde atera zalako il baitzuten Barruti. Ala, ba, il zan Juan, il zan aren mirabe zar Ana, ta Milia gaxoa etxeko bakarte artan urtzen ari zan.

PEDRO: Etzan gutxiagorako gaxoaren egoera.

LOPE: Ontan, Ozaetako Santxa andreak, gure Errodrigok aren gizon zanaren alde egiña gogoan zuala, Milia gurera ekartzea erabaki zigun.

JOANES: Gogoan det nolako eroria etorri zan neskatxa errukarria.

LOPE: Bai, aren osasuna iristeko, bere etxe-ingurutik aldendu-bearra zuten. An guzia aita zanaren eriotzaz itzegiten zeukan.

JOANES: Gaur ezto orduko itxurarik gazteak. Nolako neskatz ederra egin dala, gero, orduko Milia gaxoa!

LOPE: Ba, Jauna lagun, denok saiatu gera, ta etxeko egiña degu umezurtz ura.

JOANES: Oraintxe lau urte egingo zituan zuenean?

LOPE: Baita. Orain osasunez eta urtez egiña dagoen ezkerro, Santxa andreak Arrasatera bere etxera eramateko asmotan, neskatz berrero eskatu digu.

JOANES: Min izango dezue, ba, Miliak alde egitea?

LOPE: Ez gutxi ere. Nere seme-alabak eta nik utsune galanta izango degu etxean aren joateaz. Baña len niona, Santxa andreak gaur esan digunez, Eneko Gebarakoa, Oñatikoa Konde jauna, Ermita-jai ontara etortzekotan da.

JOANES: Ikustekoa izango da aren jantzi ta armen diz-dira!

LOPE: Ezta bat ere, orrelakorik. Armak eta soñekoen arrokeriak ez omen dira egokiak egun ontarako. Lengo zakarkerien oroitza, penitentziz eta otoi-tzez aztutzera etortzeko eguna omen degu gaurko au. Arantzazuko Andre Mari onek, maitasun eta pakera deitzen digu euskaldunoi; ta

kondeak deiorri, dagokion eran, arrokeri gabe agertu nai omen du jai ontara.

JOANES: Esaten nuan nik, Konde Jaunak biotz ona zuala.

PEDRO: Orrela izatekotan, zorion betea datorkio Oñatiko erriari.

LOPE: Jaungoikoaren Ama errukitsuak bakarrik sortu zezakean zorion eta pakea! Baña... nun ote diragure gazteok?

PEDRO: Oraintxe ikusten ditut galtzaran bera Kataberra-aldetik.

LOPE: Zuen alabak ere, or datoz. Oiek bai alkar billatu.

PEDRO: Araneko Joxe koplaria ere, berekin dute. Ez dira ixillik sartuko.

Irugarren Agertaldia

LENAK, MILIA, JUANA,
MARTIÑA, ANDRESA TA JOXE

JOXE: *(Kantari:)*

Arantzazura gatoz,

guztiok jai eta poz,
zelaiak lorez eta biotzak
Zeruko Amaren gogoz.

GAZTE-TALDEA: (*Kantari:*)

Arantzazura gatoz,
guztiok jai eta poz;
zelaiak lorez eta biotzak
zeruko Amaren gogoz.

JOXE: (*Koplari kantatzen:*)

Ezkillan baten otsak,
poztu ditu biotzak;
Ama-Semeak urtu dituzte
gure gorrotozko izotzak.

GAZTE-TALDEA: (*Kantari:*)

Arantzazura gatoz...

JOXE: (*Koplari:*)

Bost ardi galdu dira,
larre onen begira;
aiek arkitu nai badituzu,
joan Aloña mendira.

GAZTE-TALDEA:

Arantzazura gatoz...

JOXE:

Baltzategigo seme,

Errodrigo daukate;
aren bitartez ekarri digu
zeruak on eta pake.

GAZTE-TALDEA:

Arantzazura gatoz.

LOPE: Alai zatozte, gazteok.

MARTIÑA: Badator alaiagorik bidean. (*Gazte-taldea sartzen da, ta zelaian banatzen dira ixil-izketan. Talde oietako batean entzuteko eran ariko dira itzegiten ondoren jartzen ditugunak.*)

JUANA: Eztakizu, aita. Bide guziak erromesez beltz agiri dira. Bada ortxe jendea!

LOPE: Ta nun dezue Errodrigo?

MILIA: Atzean utzi degu, jendearen galdereei erantzuten. Mutil gizajoari eztiote pakerik ematen.

PEDRO: Zer nai dezue? Onen ederki etorri dira gauza guziak mutil orren bidez.

LOPE: Baña ez gaude ondo emen. Ermitan sartu bat egiteko ordua degu. Jaia asi baño lenago, agurtu dezagun Arantzazuko Ama.

JUANA: Bai, goazen! Aldarea zeru bat egiña jarriko zuten.

Laugarren Agertaldia

MILIA TA ERRODRIGO

(Talde guzia Ermitara sartzen ari dala, Milia dijoa azkenen. Abots baten deira gelditzen da nexka.)

ERRODRIGO: *(Azalduaz:)* Milia, zaude pixka batean.

MILIA: Emen al zera, Errodrigo? Au edertasuna.

ERRODRIGO: Zeruaren lana da au.

MILIA: Zu bitarteko zerala, Errodrigo.

ERRODRIGO: Orain egin dezala Zeruko Amak biok nai deguna.

MILIA: Egingo du.

ERRODRIGO: Zer dio Santxa andreak?

MILIA: Arek ama batek bezelaxe maite nau, ta zuri esker onez begiratzen dizu. Orain, Ama Birjiñak bere seme artua zaituala agertu duan ezker, eztu besterik ikusten neretzako.

ERRODRIGO: Kondeak ez al du min izango, zu, Uribarriko seme batekin alkartzea?

MILIA: Santxa andreak itzegiteko dio. Laga zazu arazo ori aren eskuan. Kondea ere, bigunduta dago, ta

aurki ikusiko dezu emen bertan. Gañera, zuek etzerate beñere gorroto oietan nastu.

ERRODRIGO: Dei egiten badit, zer esan bear diot?

MILIA: Zuk ezer gutxi; Santxa andreak itzegingo du bear danez.

ERRODRIGO: Ikusi al dezu or datorren jendetza?

MILIA: Bai, Errodrigo. Onuzkero emen dira Arrasateko erromesak.

ERRODRIGO: Or ikusten ditut. Atzeratu gaitezen kantuz oraintxe datozela uste det.

Boskarren Agertaldia

LENAK ETA ARRASATEKO
ERRI, APAIZ ETA AGINTARIAK

KOPLARIAK: *(Prozezioan sartzen dira. Koplariak asi ta erriak jarraituko du kantuan:)*

Barka izkiguzu, Ama, gure pekatuak;
itzali pake gozoz gorrotozko suak.

ERRIAK: *(Leloa berrituaz:)*

Barka izkiguzu, Ama, gure pekatuak;
itzali pake gozoz gorrotozko suak.

KOPLARIAK:

Eriotz ta negarra genituan lagun;
gure itxumena orain aitortu dezagun.

ERRIAK:

Barka izkiguzu, Ama.

KOPLARIAK:

Arantz-gañean zatoz, Birjiña laztana,
guri arindu nairik atsekabe-lana.

ERRIAK:

Barka izkiguzu, Ama.

KOPLARIAK:

Besoetan agiri dezu or Semea;
Arrasatek Arengan du bere ustea.

ERRIAK:

Barka izkiguzu, Ama.

KOPLARIAK:

Aloñako Erregin, izar dizdizari,
izan zaite guretzat Ama ta Gidari.

(Ermitan sartzen dira arrasatetarrak.)

Seigarren Agertaldia

ARRASATEARRAK EZ BESTE GUZIAK

(Bitartean, ermita-aurrean zegoen jendea, alboetara egin zuana, erdira zabaltzen da berriro.)

ERRODRIGO: Ikusi al dezue Arrasateko erriaren berotasuna?

MILIA: Zeruan geundela, ematen zuan.

ERRODRIGO: Eta nun zeru oberik, Ama Birjiñak bereztat artutako leku au baño?

MILIA: Ori esan. Eta eder au ziru lenen erakutsia.

LOPE: *(Ermitatik irtenaz:)* Zertan zerate, gazteok?

ERRODRIGO: Arrasateko erromesak ikusten egon gera, ta orain oker ezpanago, aurki degu konde jauna, Santxa andre ta etxekeekin.

MILIA: Emen itxoiteko esan dit Santxa andreak, eta kondeak ere, Errodrigo ezagutzeko gogoia duala.

LOPE: Emen ditugu. Orra nun datozen bidean gora. Andre Santxa konearekin izketan dator. Esker-rak andre orri; guk, bestela, zer arrera egin bear genion?

MILIA: Kondea armarik gabe dator. Etxekoak ere, aren gisa arrokeririk gabe datoz. Zeruak nola dakian gure biotzak aldatzen.

ERRODRIGO: Asmatuko al degu itzegiten! (*Guztiak albora egiten dute kondea agertzen danean.*)

Zazpigarren Agertaldia

LENAK, ENEKO KONDEA,
SANTXA TA KONDE-ETXEKO BATZUEK

SANTXA: Eldu gera, konde jauna. Or nun degun Ermita berria.

KONDEA: Ainbeste alegiñen buruan amaitutako lana; ta bidea ere, ezta egun bateko jarduna izan.

SANTXA: Ez, konde jauna. Askoren izerdiak bear izan ditugu Ermita jasotzeko ta bidea urratzeko; baña azkenean neke guzien sari emen degu Zeruko Ama etxeko egiña.

KONDEA: Zerutik bakarrik ar genezaken onelako mirari ta mesedea.

SANTXA: (*Errodrigo ikusirik:*) Ta Zeruko Amak guri berri on au bialtzeko aukeratu zuan gaztea, ber-

tan degu. Zatoz, Errodrigo, konde jaunak ezagutu zaitzan.

MILIA: Esan diot neuk ere, ta emen geunden zai. Goazkion, Errodrigo.

PEDRO: Barkatu bearko du gure izakera, konde jauna. Gure mutil onek ardiekin ibiltzen besterik ez du ikasi-ta.

KONDEA: Andre Mariak bere geznari ta berri-emalle aukeratu duan mutillak ez du iñon agertzeko lotsarik.

SANTXA: Ikusten al dezu, Errodrigo, zenbat jende igo dan Arantzazuko burdi-bide ontara?

ERRODRIGO: Ama Birjiñak izan du emen itza. Aren agindua beteak, ekarri dizkigu zorion eta pake au.

SANTXA: Ta zu ere, Milia, aurreratu zaite.

MILIA: (*Aurreratuaz:*) Berorren mesede guziak gaurko au dute aundiena.

KONDEA: Au izango degu Barrutiren alaba?

SANTXA: Auxe, nere gizona il zitzaidanetik nere ardurak bakarra. Ta orain, konde jauna, berorren itz baten zai daude beren erabakia artzeko.

KONDEA: Zeruko Amaren egun onetan zer uka nezaie-
ke? Nere itza ematea besterik ezpada, zertara-
ko eman bear det?

SANTXA: Bi gazte auen zoriona ta etorkizuna lotzeko,
jauna.

KONDEA: (*Miliari:*) Zure aitak, eman zezakenguzia
guretarren alde jarri zuan. Aren bizi-truke, nik
ezer gutxi eskeintzen dizut, Milia.

MILIA: Neretzat mesederik aundiena, konde jauna.

KONDEA: (*Errodrigori:*) Ta zu, gazte, Andre Mariak
orren artua bazaitu, nik ezingo zaitut bazartu.

ERRODRIGO: Andre Mariari ta berorri zor izango diot
nere zoriona.

KONDEA: Zeruak alkartu zaituzte; ez, nik. Arantzazuko
Amak batu ditzala bion biotzak.

PEDRO: Gure esker onak ez du azkenik izango.

SANTXA: Orain, Oñatiko erromesekin batu gaitzen,
guztiok gure eskero ona Jaungoikoaren Amari
agertzeko.

KONDEA: Otso-leku au, mendi santu izango da gaurtik.
Neuk ere, erritarrekin bat egiñik, sartu nai det
Ermitara. Gaur Gebarar Eneko, Ama Birjiñaren
mirabe bat besterik ez da.

SANTXA: Emen da erria, Arantzazuko Amarekiko mai-
tasunez biotz bat egiña.

Zortzigarren Agertaldia

LENAK ETA OÑATIKO ERROMESAK,
APAIZ ETA AGINTARIEKIN

(Oñatiko erromesak kantari sartuko dira. Apaiz eta agintariak, ondoren dituztela. Eneko Kondea denen atzetik, apal eta biozbera, erromesen albo sartuko da Ermitan.)

KOPLARIAK:

Arantz artean agertu zera, euskaldunon Ama
maite;

Gaurtik aurrera gure Erregin Zu bakarrik izan
zaite.

ERRIAK:

Arantz-artean agertu zera, Euskaldunon Ama
maite;

Gaurtik aurrera gure Erregin Zu bakarrik izan
zaite.

KOPLARIAK:

Zorioneko mendi maitea, zorioneko erria;
Euskalerriak Oñatin dauka bere zeruko Argia.

ERRIAK:

Arantz-artean agertu zera...

KOPLARIAK:

Ardi txuriak mendian gora arki dute Miraria;
Andre Mariak bere altzoan du Jesusen errukia.

ERRIAK:

Arantz-artean agertu zera...

KOPLARIAK:

Ezkillatxoak, aidea urratuz, zabaltzen digu berria;
aren soñura ez da galduko bidean gure erria.

ERRIAK:

Arantz-artean agertu zera...

KOPLARIAK:

Erromesaren biotzarentzat ez du aldatzak nekerik;
ezpaiditeke iñun arkitu emen añako pakerik.

(Erromesak Ermitan ezkututzen dira.

Antzeztokia utsik gelditzen da.

Bat-batean, argiak itzali ta berriro piztu bitzate.

Tarte ontan ikuspegia aldatu zaigu.

Orain, Ermita-barrua ikusten degu.

*Erromesak, Arantzazuko Amaren aurrean
belauniko, Aita Donostiren abesti au asten dute:)*

(Leloa:)

Zeruak aukera digu Euskalerriko Zaindari.
Argatik gaude kantari Arantzazuko Amari.

KOPLARIAK: *(Ahapaldia:)*

Gure griñen arantzetan miñez gaituzu Maria;
baña zure elorri orrek eman du lore zuria.
Arantz arteko larrosa degu zeruko gidari.

ERRIAK:

Argatik gaude kantari Arantzazuko Amari.

KOPLARIAK:

Baltzategiko Rodrigo mendian zebillen artzai;
ardi galduak biltzeko, nun ote ziran jakin nai.
Orduan billa zinduzen jarraituz kanpai-deiari.

ERRIAK:

Argatik gaude kantari Arantzazuko Amari.

KOPLARIAK:

Euskalerria gorrotoz zebillen oso galdua;
anai-arteko burrukaz odoletan kutsatua.
Baña Zuk eskein zenion PAKEA gure erriari.

ERRIAK:

Argatik gaude kantari Arantzazuko Amari.

KOPLARIAK:

Arantzazuko kanpaia, zaude beti dulundari,
zure bidez gure Ama billa zagun dizdizari;
ta, Ari esker, Jesus Ona dezagun betiko sari.

ERRIAK:

Argatik gaude kantari Arantzazuko Amari.

Antzoiala poliki-poliki bera.

AZKENA